



**Nazioarteko boluntariotza:
inplikazioaren eta elkarrizketa
kulturalaren esperientzia.**

Ikasteko esperientzia

Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda Kalea 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: Rosa Santibañez Gruber,
Natxo Gómez Marroquín, Concha Maiztegui Oñate,
Josu Solabarrieta Eizaguirre, Laura Bahillo Pérez,
Isadora Norman Bornstedt eta **ALBOAN**

Data: Abendua 2007

Itzulpena: Laxaro Azkune Sodupe

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: BI-3601-07

ISBN: 978-84-6121762-5

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburu aipatzen baldin bada.

Eskerrak

VOLPAk jarraitu egiten du, bere burua eraikitzen eta apustu egiten nazioarteko harremanetan aldaketa eragiteko, izan ere, guztiek behar baitute pertsona izateko duintasunaz gozatzeko aukera emango dien mundu bat. Kezka hau pertsona eta kolektibo askorekin partekatzen dugu. Gure ekarpen zehatzak Ipar-Hego arteko bat etortzea bideratu nahi luke, askatasunetik datorren bat etortzea, eta ez aginte-mendetasun harremanetatik datorrena. Honek eragin dezakeen aldaketa ahalmena, boluntarioek baiesten digute itzultzen direnean, eta esperientzian ikasi eta bizitako guztia gizarte honetara egokitzeko beren kezka gurekin partekatzen dituztenean. Boluntarioak beste pertsonen errealitateetara askoz irekiago ari dira itzultzen esperientzia hauetatik, desberdina gehiago baloratuz, sentikorrago izanez injustizia egoeren aurrean, kritikoago pobrezia-aren eta aberastasuna-aren arteko etena areagotzen ari den sistemarekin, gizatiarrago eta erneago. Hauxe da Hegoaldetik dakarten oparia, eta kutsatzea beharrezkoa dena guztion ahots bilaka dadin. Norbanakoaren muga gainditu dezan, eta eragin soziala izateko eta itxaropena baiesteko balio dezan.

VOLPA programan inplikaturik dauden eta honen eragina bizi izan duten pertsona guztiei, zein argitalpen hau posible egin dutenei gure eskerrik beroena eman nahi diegu.

Aurkibidea

1. Aurkezpena 7
2. Nazioarteko boluntarioritza 11
3. Kultura-arteko gaitasuna 29
4. Boluntarioen prestakuntza eta esperientziaren betekizuna 47
5. Esperientzia zehatz bat, VOLPA boluntarioritza 63
6. Ondorioak eta gomendioak 95







Aurkezpena

Eskuartean duzun argitarapenak, “VOLPA 15 urteko inplikazioa eta kultura-arteko elkarrizketa. Ikasteko esperientzia” izenburua duen ikerketan aztertutako zenbait alderdi jasotzen ditu.

Ikerketa honek nazioarteko boluntario-programa baten, urtebeteko prestakuntza-aren azterketa egin du, herrialde batean, Latinoamerikan batez ere, bi urteko esperientzia, eta itzulerako denbora bat biltzen dituelarik. Ikertu den nazioarteko boluntario-programa VOLPArena izan da, Pedro Arrupe Boluntariotza, alegia.

Borondatez egindako inplikazio, bizipen eta kultura-arteko elkarrizketa esperientzia da. Inplikazio eta kultur elkarrizketa hori lortzeko, programak berekin ditu prestakuntza eta lagun egitea, esperientzia oren zeharkako osagai gisa.

Beste errealitate eta kulturekin izandako hamabost urteko bidaltze eta elkartrukeen ondoren, egoki iruditu zaigu programari eta esperientziei begirada bat botatzea, eta esperientziaren protagonisten azterketatik bertatik, hau da, boluntarioak, bidaltze- eta harrera-erakundeak, eta inplikazio sozialaren eta kultura-arteko elkarrizketaren estrategia honetatik ikastea. Esperientzia honen emaitzak beste batzuei argi egin diezaiekeela uste dugu, eta horixe da ondorengo orrialdeetan zehar partekatu nahi duguna.

Nazioarteko boluntariotzaz eta kultura-arteko gaitasunaz, alderdi teorikotik, hurbilpen bat eginez hasiko gara, gero, programa hauetan giltzarritzat agertu diren bi alderdiri buruz, hau da, prestakuntzaz eta esperientziaz gogoeta egiteko. Ondoren, azterketa egindako kasuaren, VOLPA nazioarteko boluntario-programaren aurkezpen laburra egingo dugu. Eta azkenik, ikerketan zehar egindako azterketaren ondorioak eta zenbait printzipio eta gomendio ere aurkezten ditugu, inplikazio sozialeko eta kultura-arteko elkarrizketen beste esperientzietan balio dezaketela iruditzen zaizkigunak.





2

Nazioarteko
boluntarioritza

Definizioa

Boluntariotzaren kontzeptuari heltzea nahiko eginkizun iluna izan daiteke, ez baitako definizio bakar bat eta, gainera, era desberdinak hartzen baititu zenbait tesuingurutan. Ondoren nazio mailan eta nazioarte mailan onartutako zenbait definizio aurkezten ditugu.



Boluntariotza, latineko voluntas hitzetik dator; eta bakoitzaren aukera pertsonal gisa itzul daiteke.

Boluntariotzak, zenbait praktika burutzeko, denbora, ahalegina, trebetasunak eta borondate ona eskaintzeko gogoia adierazten du. (Costanzo, 2002)

Marko formalean eta denbora jakin baten barruan, bere denbora eta/edo bere ahalmenak libreki eta doan ematen dituen pertsona baten konpromiso altruista da. Boluntarioek beren jarduerak burutzeko, zenbait baldintza bete behar dira praktikan eta, bereziki, bere mantenu eta garraio gastuak ordaindu behar dira, eta babes soziala ere eman behar zaio. (UNESCO, 2000)

Boluntariotza, talde sozialik bereizten ez duen gertaera soziala da, mugak gainditzen ditu eta giza jardueraren alderdi guztietan agertzen da. Baliabide bikaina da, gure garaiko garapen-erronka askori aurre egiteko balia dezakeguna. [...]. Boluntariotza aukera eta garapenerako katalizatzaile da, Milurtekoaren Garapen Helburuak arrakastaz betetzeko estrategikoki bidera daitekeena. (Voluntariado Naciones Unidas, 1999)

Hartzen duen era hartzen duela, jarduera hau, funtsezko lau alderditan bereizten da lan ordaindutik edo aisialditik:

- ✓ **Ekintzaren izaera:** boluntariotzaren maila.
- ✓ **Ordainketaren izaera:** nolabaiteko ordain-saririk egotekotan (ordain-saririk gabe, espero izandako ordain-saririk gabe, gastuen ordaina, soldata txikia).
- ✓ **Testuinguruaren egituratze maila** (formala gutxi-asko).
- ✓ **Laguntzaren helburu den taldea:** pertsona ezezagunak, ezagunak edo auto-laguntza.

Nazioarteko boluntariotzaren kasuak baditu berariazko kasuak eta, beraz, aintzat hartu behar dira, gutxienez, garrantzi handiko beste hiru alderdi ere:

- ✓ **Dimentsio geografikoa:** egia da mundu globalizatuan aurkitzen garela, urruntasunaren muga progresiboki laburtzen doakigula, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek laburtu egin dutela, orain urte batzuk, lankidetzaren programetara joaten ziren pertsonak behartuta aurkitzen ziren isolamendu familiar eta soziala. Hala ere, ezin dugu ahantzi, nazioarteko boluntario askori, lekualdatzeak eragiten dien deserrotzea oztupo bat gehiago bilakatzen dela, egin behar dituen zereginak, berez dituzten zailtasunen artean. Alderdi honek oraindik garrantzi handiagoa hartzen du, boluntario horren bidaia luzeko eta denbora-tarte handiko lehen esperientzia baldin bada.
- ✓ **Kultura-arteko dimentsioa:** kultura desberdintasunek, bai erlijioak, gastronomiak, portaerak edo baita aisialdiaren praktiken alderdiek ere, baldintza litzakete, parte-hartzaileen eta harrerako herritarren arteko harremanak. Bai errealtatea ez ezagutzeak, eta baita itxaropen faltsuek edo estereotipo zurrungiek ere, oztupa lezakete boluntarioen beharrezko integrazioa.
- ✓ **Hizkuntza:** sarri askotan, harrera egiten dien komunitatearen hizkuntza ezagutzea osagai funtsezkoa da boluntariotza burutzeko. Beste zenbaitetan, energia psikologikoa berreskuratzeko behar duten erosotasun emozionala izateko, funtsezkoa baita harreman ez-formalak sortzeko eta indartzeko, bere lankidetzaren zeregina arrakastaz burutzen lagun diezaion. Hizkuntza menderatzen ez duen egoeran denbora luzez eta bakarrik egoteak, eta honek taldearen komunikazio sarean izan ditzakeen ondorioek, eraman lezake boluntarioa, bere harreman gaitasuna zalantzan jartzera, eta bere auto-estimua neurri soziala hondatzera.

Modalitateak

Boluntariotzak, oso izaera desberdineko tipologiak, lanak eta erakundeak hartzen ditu bere baitan, eta biltzeko ahalegin handiak egin izan dira. Honen ondorioz, proposamen aukera anitza dago, jarraian aurkezten direnak.



Parte-hartze eremuaren arabera bereiz daitezke, aukera ematen duelarik horrek, boluntario soziala, kulturala, larrialdikoa eta hondamendi naturaletakoa edo ingurumen zaintzarena bereizteko.

Beste tipologia klasiko batek, elkar laguntza, filantropia edo hirugarrenen zerbitzuak, herri-ekintzetan partehartzeak, edo boluntarioak sentiberatzeko zereginetan lagun egitearen arabera antolatzen ditu boluntario-mota desberdinak. (United Nations Volunteers, 1999)


Eta nazioarteko boluntariotzari dagokionez, Sherraden eta bere lankideek (2006), nazioarteko bi boluntario-programa mota bereizten dituzte lortu nahi den helburuaren arabera: alde batetik, balioen garapena eta nazioartearen sentiberatzeari zuzendurikoak, eta bestetik, harrera-herriaren zerbitzura eta garapenera zuzenduriko proiektuak.

UNESCO erakundeak (2000) bereizten ditu, erabateko arduraldiko boluntarioak, boluntarioaren jarduera nagusia hori denean, eta zatiko arduraldia duten boluntarioak, asteko edo hileko ordutegi zati batean ari direnean. Argi dago, bere berezitasunengatik, erabateko arduraldikoa dela nazioarteko boluntariotza.

Lauki erantsian jasotzen da, normalean boluntarioak taldekatzeko edo sailkatzeko erabiltzen diren neurrien laburpena.

1. laukia. Boluntariotzaren tipologiak (Costanzo, 2002)

Iraupena



Neurri geografikoa



Adina



Boluntario-mota



Kolokazio-mota



Lege-markoa

Herri gutxi izan ziren boluntario-programen lege arazoei arreta jarri zietenak, 2001 urtean Boluntariotzaren Nazioarteko urtea antolatu zen arte. Gertakari horretarako prestaketa lanetan sumatu zen, garrantzitsua izan zitekeela, bere garapenerako, boluntariotzaren aldeko legeria eta, beraz, egiteke dagoen zeregintzat hartzen da (Parlamentu-arteko Batasuna, Elkarteen Nazioarteko Federazioa, Gurutzeko Gorrikoena eta Ilargi-erdi Gorria, 2001).

Estatu mailako eta Autonomia Erkidegoetako legeria, laguntza handia dira boluntario-programentzat, nahiz eta Nazioarteko boluntarioaren irudirik ez jaso, kasu gehienetan. Zentzu honetan, UNESCOk (2000) adierazten du arazo izan daitekeela lege-definizio falta, gisa honetako programetan.

Zailtasun hauek hobetze aldera, arlo honetako erakunde nagusienetako lauak (Nazio Batuak, Gurutze Gorria, Ilargi-erdi Gorria eta Parlamentu-arteko Batasunak) dokumentu bat argitaratu dute, boluntariotzari aplikatu dakizkiokeen legeak izateko premiaren gogoeta sustatzeko asmoz. Lau erakundeek boluntariotzaren eragina izan dezaketean zuzenbideko arlo desberdinak aztertzen dituzte eta honako eremu hauek proposatzen:

- ✓ funtsezko eskubideak eta askatasunak,
- ✓ nazioarteko zuzenbidea,
- ✓ lanaren eskubidea (osasuna eta segurtasuna, erantzukizun zibila, gutxieneko soldata, langileen borondatezko-zerbitzuak),
- ✓ zerga-zuzenbidea,
- ✓ babes sozialeko legeria,
- ✓ inmigrazio-legeak,
- ✓ arautegi markoak, irabazi asmorik gabeko edo ongintzako erakundeentzat.

Nazioarteko zenbait erakundeek, Europako Kontseilua edo Europako Batasuna kasu, nazioarteko boluntariotzak izan ditzakeen onuren jakitun eta sustatzen dituzten programen inplementazioa ziurtatu eta gainbegiratze erantzukizunak bere eginez, arautegiak egin dituzte, prozesu haueetan inplikaturako erakundeetan betebeharrak bezala boluntarioen eskubide eta betebeharrak ere jasotzen dituztenak. Dokumentu xumeak dira baina oso erabilgarriak, prozesu hauei eragiten

dien gai desberdinen marko orokorra eskaintzen baitute, alde formaletatik (aseguruak, bisatuak, mediku agiriak, alde administratiboak) betebeharretaraino (adin-muga), boluntarioen eskubideen azalpen zehatzetik (ordutegiak, baliabi-deak, prestakuntza), inplikaturako eragileen koordinazioa edo proposaturako hitzarmenaren kopia batetik pasatuz. Beren interesa dela-eta, material hauek, erreferente bilakatu dira, nazioarteko boluntario-programa antolatzeko orduan¹.

Motibazioak

Boluntariotzaren erakundeetan bezala egindako azterketetan boluntariotzaren bilakaera ikusi da, bereizketa egin daitekeelarik “betiko tankerako boluntariotzaren”, bere altruismoagatik eta konpromiso pertsonal sendoagatik nabarmentzen dena, eta “boluntariotza berria”, ekintzara bideratuago, eta bere inplikazioa denboran eta edukietan izango denaren aukera argiekin.

1983an Ikerketa Soziologiko Taldeak (EDIS, 1983), Espainiako boluntariotzaren azterketa zabal batean, boluntarioen oinarriko motibazioak hiru talde nagusitan bil zitezkeela adierazi zuen:

- ✓ **Bestearengana zuzendutakoak:** humanismo karga handikoak.
- ✓ **Niari zuzendutakoak:** berekoikeria karga handikoak.
- ✓ **Edo errealitate kolektiboaren ulermenagatik nabarmentzen direnak,** politizazio karga handikoak.

Motibazioak lankidetzaren ikuspegi idealista edo pragmatiko baten artean mugitzen dira, edo hitz errazagoekin esanez, etengabeko eman eta hartzearen artean. Nazioarteko boluntariotzan, lankidetzaren programa batean sartzeko arrazoiak, sarri askotan, nahastuak aurkitzen dira gazteriarren beraren balio, helburu eta bakoitzaren bizitza ikusteko erarekin.

Esan liteke, beraz, kasu gehienetan, boluntariotzaren inplikazioan ez dela emate hutsa gertatzen, hitzaren esan nahi hertsian, trukea baizik.

¹ Zentzu honetan, Training-Youth orrialdea bisita daiteke, Europako Kontseiluak eta Europa Batasunak argitaratzen dutena eta parte-hartzeaz eta gazteriaz informazioa ematen duen orria (www.youth-knowledge.net/INTEGRATION/TY/Publications/T_Kits.html weba). Arlo honetan oso interesgarria da, nazioarteko boluntario-zerbitzuaz arduratzen den T-Kit 5, International Voluntary Service, delakoa (bakarrik ingelesez eskuragarri).

Nolabait esateko, bere ezagutza, denbora eta ahalegina ematen dituen pertsonak beti espero du sari bat (itxaropen kakoan ulertuz), nahiz eta aitortzeko gai ez izan, zenbaitetan. Ondoren datorren laukian aurkezten dira kasu gehienetan aipatzen diren zenbait elementu.

2. laukia. Eman eta hartu boluntariorizan (FICRMLR-en egokitua, 2000)

Boluntariorzak ematen du

Denbora
Gogoia
Ezagutzak
Konpromisoa
Erantzukizuna

Erakundeek ematen dute

Programak
Prestakuntza
Kudeaketa
Laguntasuna
Aitormena
Motibazioa
Bitartekoak

Boluntariorzak jasotzen du


Ezagutza
Adiskidetasuna
Esperientzia
Trebetasun berriak

Erakundeek jasotzen dute

Erraztasun gehiago helburuak lortzen
Irudi eta sentiberatasun publikoak
Gizartean inplikazioa.
Ordezlagaitasuna
Oinarri soziala

Praktikan motibazioen pisua baloratzeko orduan, ekintza arrazoituaren teoria ari da aplikatzen boluntariotzaren eremuan, hasiera batean kide ez diren pertsonak erakundeetan sartzea (Okun & Sloane, 2002; Warburton & Terry, 2000), borondatezko lanaren arduraldiaren intentsitatea (Greenslade & White, 2005) eta erakundeetan iraungo duten denbora (Davila, 2003; Vecina, 2001) aurreikusteko.

Jarrerak eta motibazioak portaeraren adierazle oso onak dira, baina oso txarrak aurreikusteko. Erreferente sozialekin lotura duten beste eragile sozialek, eta arautegi-sinismenek eragin aipagarria dute, ondoren datorren laukiak adierazten duen bezala.



Bestalde, konpromisoak, oso eginkizun garrantzitsua du boluntarioen jarraipenean. Hala bada, lotura zuzena dago partehartzea eta konpromisoaren artean, zenbait eta partehartze handiagoa orduan eta konpromiso handiago, eta aldeantzez, zenbat eta konpromiso gehiago, orduan eta partehartze gehiago.

Alabaina, boluntarioaren rola bere nortasunaren parte izatera iristen denean, arau sozialak bezalako aldagarrien gainetik sortu eta mantentzen dira portaerak, izan ere, pertsonak bere nortasunarekin koherente diren portaerak izaten saiatzen baitira, batez ere (Chacón, 2006).

Horrela bada, boluntariotzaren ibilbidean zehar motibazioak aldatu egiten direla egiaztatzen da, eta ez dutela pisu berbera esperientziaren hasieran eta bera gertatzen ari denean. Bigarren une honetan, konpromisoak eta pertsonak garatu duen bere boluntario-nortasunak eragin handiagoa dute.

Protagonistak: pertsonak eta bidaltzeko eta harrera egiteko erakundeak

Nazioarteko progamek, bi herrialde desberdinetan nahastutako hainbat bazkide edo eragile eskatzen dituzte. Honek berekin du prozesuaren aurretik eta horrekin batera egin beharreko logistika-lan guztia. Hiru dira funtsezko hiru eragileak eta, programa ongi joateko, beharrezkoa da hiruren arteko lan bateratua: boluntarioak, bidaltzen dituen erakundea eta harrera egiten dien erakundea.

Boluntarioak

Beren kemen, ideia eta jardunaren bidez, nazioarteko programa horren arrakastan lagunduko duten pertsonak dira. Garrantzitsua da oso jakitea, pertsona bat zergatik konprometitzen den iraupen luzeko boluntario-programa batean, bere ingurutik milaka kilometrotara, baina parte hartzen duten kideen heldutasunak eta indar psikologikoak paper garrantzitsua jokatzen dute beren bizipenetan, eta pertsona, elkarte eta erakunde desberdinekin parte hartzeko eta harremanak izateko moduan.

4. laukia. Boluntarioaren trebetasunak eta ezaugarriak

- ✓ Pertsona heldua eta sendoa psikologikoki.
- ✓ Koherente, izateko, pentsatzeko eta bizitzeko era batekin.
- ✓ Lankidetzarako eta justizia sozialerako borondatearekin.
- ✓ Frustrazioaren eta anbiguotasunaren tolerantzia handia.
- ✓ Aldaketara irekia.
- ✓ Malgua.
- ✓ Nortasun propioa.
- ✓ Komunikatzeko gai dena.
- ✓ Solidarioa.
- ✓ Sortzailea eta umoretsua.

Zaila da, boluntario batek beharko dituen berezitasunen zerrenda luze bat osatzeko tentaldian ez erortzea, partehartzeko animuan ez atzetzeko bezain zehatza eta zorrotza. Alabaina, ongi dago esperientzia itxuraz garatzeko beharrezko diren alderdi eta trebetasunak argi izatea. Jarrera, balio eta trebetasun hauek ez dira aldez aurreko baldintza, esperientziaren aurretik eta ari denean egingo diren prestakuntza eta laguntza saiocetan landu daitezkeenak eta landu behar direnak baizik. Aurreko dena kontuan hartuz, boluntarioen zenbait alderdi funtsezko aipatzen ditugu.

Gehienetan, nazioarteko gizon-emakume boluntarioek, neurri batean, aurkitua dute bizitzan beren bidea eta, izateko, pentsatzeko eta bizitzeko era jakin baten koherentziatik, gisa honetako proiektu baten aldeko aukera egiten dute, moda sozialen edo norbere esperimientuen gainetik.

Lankidetzak eta laguntzak, pertsona eta gizartearen ikusteko eraren barruan, doakotasun kultural eta justizia sozialaren ideian, zentzua izan behar du, eta ez

segurtasun faltarengatik, edo ezta geure burua baliagarri eta sozialki onartuak sentitzeko premiagatik ere.

Aditu gehienak bat datoz, zera adierazterakoan, frustrazioaren eta anbiguotasunaren aurrean behar dugun tolerantzia, aldaketarako prestutasuna, malgutasuna eta dogmatismorik eza direla nazioarteko boluntarioari egokitzen, ingurune berriak errealitate zentzuz ikusten eta harrera egiten dioten komunitateetako kideekin harremanak izaten lagunduko dioten gaitasun pertsonalak. Era honetan, defentsa portaeretan ahalegin gehiegitan nekatu ordez, esperientzietan eta eza-gutzetan erabiltzen du indar hori.

Garrantzitsua da gutxi-asko definitutako nortasuna izatea, nortzuk garen, eta bizitzan zer nahi dugun jakitea, horrek uzten dio bati bere usteen arabera jokatzeko, besteen ikuspegiak errespetatuz.

Pertsona hauek jatorrak izan behar dute, eta gai izan behar dute sakonean komunikatzeko, maitasuna eman eta jasotzeko, orainaldian bizitzen den solidaritatea adierazteko, eta iraganaren loturak eta haren erruen zamapetik, eta baita oraindik gertatu ez den etorkizunak hipotekatzetik askatzeko ere. Lanean bokazioz, sormenez eta umore onez, errutinan erortzen utzi gabe, eskaintzeko gai izatearen garrantzia aipatu behar da.

Bidaltze erakundeak

Autore desberdinek jasotzen dutenaren arabera, boluntario-proiektuen funtzionamendu ona baldintza batzuetan oinarritzen da. Lehen baldintza boluntarioen aukeraketa da. Fonsecak (2001) gogorarazten du, aukeraketa irizpideak garbiak eta ekintzaren filosofiari dagozkionak izan behar dutela. Komunitatearen beharrak eta eskakizunak izan behar dute, noski, abiapuntuko baldintza, baina, hortik aurrera, erakunde bakoitzak bere profilak garatuz eskatzen den konpromisoaren, egin behar diren zereginen, espezializazioaren, etab.en mailaren arabera.

Beste ezinbesteko baldintzak dira: boluntarioari babes soziala (UNESCO, 2000) eta prestakuntza ematea. Boluntarioaren prestakuntza, programa hauek garatzen dituzten erakundeen eginbeharra da.

Planifikazioa eta koordinazioa ere proiektu hauen zeregin garrantzitsuak dira. Zeregin hauek ez dira bukatuko proiektuaren ebaluazioa itxi eta itzuleran lagun egitea burutzen den bitartean.

5. laukia. Bidaltze erakundeen funtsezko osagaiak

- ✓ Aukeratze prozesua: argia eta ekintzaren filosofiari dagokiona.
- ✓ Arreta jarri komunitatearen eskariei eta premiei.
- ✓ Babes sozialaren eskaintza.
- ✓ Prestakuntza programa baten eskaintza.
- ✓ Bidaltzearen eta antolaketa kudeaketa, eta garatu beharreko eginkizunen planifikazioa.
- ✓ Esperientziaren ebaluazioa zerikusia duten eragile guztiekin.
- ✓ Lagun egitea, esperientzian zehar eta berau bukatzean.

Harrerako erakundea

Bi erakunde artean (bidaltzen duen elkartea eta harrera egiten duena) edo baita herrialdeen artean ere, zubiak eta loturak sortzea, nazioarteko boluntario-programen ekarpen nagusitzat jotzen da.

Luba Pavlovovak (2002) harrera-erakunde egokia izateko behar diren irizpide estandar batzuk landu ditu. Irizpide hauek bost gaitan banatuta aurkitzen dira, komunikazioa, prestakuntza, logistika, boluntarioen laguntzarako ekintzak eta finantzazioa, irizpide hauek bide ematen digute, harrera-erakunde baten zeregin nagusienak gogoratzeko:

- ✓ Inplikaturako bi erakunde arteko **komunikazioa** ezinbestekoa da proiektua prestatzeko eta praktikan ongi jartzeko. Zereginak mugatzeko eta xehe-tasunak doitzeko baldintza bilakatzen da. Arrazoen aztertzea funtsezkoa da gisa honetako proiektuetan inplikatzen. Gainera, interesgarria gertatzen da kanpo komunikazio ona mantentzea, komunitatearen, beste erakundeen eta prentsaren artean, proiektuari ikusgarritasuna eman diezaioten.

- ✓ **Prestaketa:** badaude zenbait bete beharreko baldintza, boluntarioak iritsi aurretik, harrera prestatuko duen pertsona arduraduna izendatzea, adibidez, interprete bat bilatzeaz arduratu dadin, beharrik izanez gero. Komeni da zeregin hauek proiektuarekin lankidetzan aritzeko prest dagoen pertsona bati ematea, eta hori behar besteko aurrerapenez negoziatzea.
- ✓ **Logistika:** antolakuntzak prestatu behar die boluntarioei ostatua, boluntarioen integrazioa auzoan bertan izan dadin, eta, horregatik, garrantzitsua da antolakuntza arduratzea logistika gaiez, hau da, garraioa, ostatua, baliabi-deak, etab.ez.
- ✓ **Zereginak izendatzea eta boluntarioei laguntza:** zereginak izendatzea eta boluntarioen ardura egokiak dira, beren motibazioan eta proiektuaren arrakastan, eragin handiena duten eragileak. Horrez gain, pertsona arduradunak gainbegiratu beharko luke proiektua, logistikaren alderditik hasi eta zereginetan behar duten laguntza emozional edo prestaketaraino. Horregatik, komeni da garaiz pentsatzea nola izango den pertsonen lan-eguna, beren zereginak, ordutegiak, lagunak eta praktikan jarri beharko dituen trebetasunak. Atsedeneak ere garrantzitsuak dira, sarri askotan iraupen ertain edo luzeko programak izaten dira, eta une horiek aintzat hartu behar dira, topaketari dagozkionak baitira, bertan, konfiantza eta adiskidantza harremanak sor daitezke-eta.
- ✓ **Finantzazioa:** proiektuaren prestaketan, proiektuaren finantzazioa eta boluntariotzari egindako ekarpenak bezalako gai ei heldu behar zaie.

6. laukia. Harrerako erakundeen osagai funtsezkoak

- ✓ Komunikazio erraza erakunde bidaltzailearekin.
- ✓ Harrera egingo duen pertsona arduraduna izendatu: laguntza logistikoa, lagun egite emozionala eta bere zereginean prestatzea.
- ✓ Boluntarioen lan zereginak mugatzea.

Nazioarteko boluntariotzaren onurak eta arriskuak

Onurak

Parte-hartzeak onura ugari ematen dizkio boluntarioari. Alde batetik, orokorrean, mugikortasunak eta bidaiek funtsezko zeregina betetzen dutela pentsatzen da **sentiberatzearen, beste kulturak aurkitzearen eta jarrera irekiak sortzearen** ikuspegitik.

Bestetik, nazioarteko boluntariotzak **kultura desberdineko pertsonen arteko hurbilketa** eragiten du, horrek berekin duen elkar aberastea, kulturen arteko elkartrukea eta **desberdintasuna eta injustizia soziala laguntzen dituzten baldintzen aldaketaren bila** egindako baterako lanaren ondoren.

Azkenik, boluntariotzaren esperientzia uste da, heziketa prozesu ez-formala dela, **norbere hazkuntzan** laguntzen duena eta, modu nabarmenean, mundua ulertze-ko era berri batean eragiten duena, garatutako balio eta jarreraren bidez. Zentzu honetan, garrantzitsua da boluntarioak, gerora, egingo duen transmisioa dituen ezagutza, balio eta berak bizi izandako esperientzian garatutako jarrerekin. Era honetan, bere jatorrizko gizartean, errealitatearen ikuspegi eraldatzailea transmititzen duen **eragile biderkatzaile** bilakatzen da.

Arriskuak


Garrantzitsua izango da, boluntarioa, Hegoaldeko herrialdeen inguruan zabalduz dauden aurreiritziak gainditzeko gai izatea, hau da, **mendetasuna eragiten edo betikotzen** laguntzen dutela, eta ez dituztela komunitateetan prestaketa prozesuak laguntzen. Eginkizun zaila da, arrazoi honengatik, funtsezkoa da boluntariotza zein baldintzatan egiten den aintzat hartzea, eta ondorio negatiboak eragin ditzaketen zirkunstantziak saihestea (Amir, 1969). Zentzu honetan beharrezkoa da, **adierazitako ikuspegi etnozentrikoari aurre egitea, elkarren arteko aldea, gainditu beharreko defizit gisa ikustetik, beste kultura bat norberearen parametroetatik baloratzea eta interpretatzea eskatzen duena.**

Nazioarteko boluntario-programen beste oztopo edo arriskuetaiko bat, hauek **bide bakar batera, Iparraldetik Hegoaldera mugatzea** da, pertsonen mugimenduak trukea beharko lukeela kontsideratuz. Alabaina, erakunde multilateralek eragindako nazioarteko boluntario-programak, gai dira Hegoalde-Hegoalde eta Iparralde-Hegoalde boluntario-aukerak eskaintzeko. Gizarte zibileko erakundeek kasuan oso gutxitan gauzatzen da proposamen hau.

Azkenik, apartatu honetan planteatzen dituen lau egoera nabarmendu (Aranguren, 2003), eta alderdi bakar bati lehentasuna ematen bazaio, arriskuak ekar ditzakeena nazioarteko boluntariora egokiarentzat:

- ✓ **Proiektuaren lehentasuna prozesuarekiko**, komunitatearen eta martxan dauden mugimendu sozialen prozesuetan.
- ✓ **Elkarrizketa praktikak gailurrean**, bertan ez dute parte hartzen interesik gehieneko pertsonak.
- ✓ **Mendetasunaren sustapena**.
- ✓ **Despolitizazioa areagotzea**.





Kultura-arteko
gaitasuna

Migrazio mugimenduak eta kulturen arteko elkarrizketak ez dira gertakari berriak. Informazioaren eta ezagutzaren gizarteak, teknologiak eta globalizazio prozesuek, gure eguneroko bizitzaren zati bihurtu dute elkarrizketa hau. Elkarbizitzen ari garen pertsonak anitzak gara ikuspegi oso desberdinetatik begiraturaz, hala nola, adina, generoa, klase soziala edo ideologia. Azken urteetan, kultur aniztasunaren hazte ikaragarria ikusi dugu gainera.

Kultura-arteko gaitasuna, ezinbesteko tresnatzat hartzen da, kultura desberdinen arteko harremani era egokian aurre egiteko. Kultur aniztasuna hazten ari den herrialdeetan, funtsezkoa da harreman positiboak sortzeko desberdintasun horiek ongi erabiltzen jakitea. Trebetasun hauek bereziki garrantzitsuak dira, beren lana osasun sailean, sozial arloan, heziketa arloan edo lankidetzaren arloan egiten duten pertsonentzat. Kultura-arteko gaitasunak trebezia ez ezik sentikortasuna eta norbere munduaren eta bestearenaren ulermena ere eskatzen du.

Definizioa

Gaitasun globalaren edo kultura-artekoaren kontzeptua eztabaidagarria da, edo susmagarria bai gutxienez, lankidetzaren edo boluntariotzaren ari den munduko pertsona askorentzat, ideologia ez oso zuzen bati eta interes guttiz ekonomizistari lotzen zaiolako. Ondoren aurkezten ditugu zenbait definizio.



Beste kulturetako pertsonen artean, eta egoera eta testuinguru oso anitzetan, arrakastaz elkarri eragiteko gaitasuna da. Gaitasun sozialaren kontzeptua litzateke kultura-arteko inguruetara aplikaturik. (Crawshaw, 2002)

Kultura-arteko komunikazioaren alderdi funtsezkoak erabiltzeko norbana-koaren gaitasun orokorra da: kulturen arteko diferentziak, eta ez oso hurbilekoak adibidez, talde arteko dinamikak, eta prozesu hauek berekin dituzten tentsioak eta gatazkak. (Boom, 2000)

Normalki, hiru maila bereizten dira kultura-arteko gaitasunean:

- ✓ norbanakoa,
- ✓ erakunde mailakoa eta
- ✓ zenbait ikerketa, balorazio eta heziketa mailako esku-hartze egin daitezkeen talde etnikoena.

Aldaketa-joera honek zuzenen eragin dion eremu sozialetako bat hezkuntzarena da.

Irakasleria, kultura-arteko gaitasunaren hiru modu desberdin bereizteraino iritsi da honako ñabardura hauekin:

- ✓ **orientabide etiko** gisa, eta honakoa litzatekeena: “norbere balioen eta helburuen jakitun izatea, eta beste pertsona batzuei hauek justifikatzeko gai izatea”,
- ✓ **eraginkortasunera begirako** orientabide gisa eta
- ✓ **orientabide pedagogiko** gisa, eta honakoa litzatekeena: “jatorri desberdinetako ikasleen ikasketa prozesua sustatzeari dagokio” (Jokikoko 2005).

Hezkuntza munduan kultura-arteko prestakuntzaren hasierak arakatzen baditugu, hauek hizkuntza klaseetara eta nazioarteko proiektu trukaketara atzeratzen dira. Bigarren hizkuntza ikasteari dagokionez, jarrerarik egunekoenek aitortzen dute, ez dela hizkuntzaren kultura bakarrik ulertu behar, baizik komunikazioan eragina izan dezakeela geure kulturatzat onartzeak. Frogatua dago, pertsona bakoitzaren mundua ikusteko eta pentsatzeko modua, berak hitz egiten duen hizkuntzari eta hizkuntza hori garatu den kulturari oso estuki loturik dagoela. Horregatik, beste hizkuntza batean komunikazio ahalmen egokia lortu ahal izateko, beharrezkoa da, hizkuntza hori sorrarazten duten kultur ñabardurak jasotzea.

Nazioarteko trukeei dagokienez, kultura-arteko gaitasuna bi arrazoiengatik haritzen da aintzat.


Alde batetik, goi ikasketako erakundeek eta gobernuek, gero eta mundu globalago eta elkarren artean lotuago baterako, gaur eguneko ikasleak eta biharako langileak prestatzeko premia ikusi dute. Estatu Batuetako gobernuak, esate baterako, **gaitasun global** gisa nazioarte mailan aritzeko beharrezko diren trebetasunez ari da, eta atzerriko egonaldi akademikoak “beste pertsonaren” ezagutzaren falta osatzeko forma gisa ikusten ditu. Europako testuinguruan, SOCRATES eta ERASMUS programak, antzeko asmo bati erantzuten diote, Europa Batasuneko herrialdean arteko ulermena eta harremanak indartzeaz batera.

Bestetik, esperientzia arrakastatsua oinarriak ezartzeko, ikasleak kultura-arteko gaitasunaren berri izanez irten behar du, edo egonaldian eskuratu behar ditu. Adibidez, Fantinik (2000), kultura-arteko heziketaren testuinguruan ikasketaren faseak deskribatzeko, lau maila proposatzen ditu: I) *Heziketa bidaiaria*, egonaldi laburretan eskura daitezkeenak dira; II) *Sejournera*, beste herrialdeetan egonaldi luzeagoak egin dituztenak, praktika esperientzia gisa; III) *Profesionala*, nazioartean urteetako esperientzia duen pertsona; eta azkenik IV) *Kultura-artekoan edo kultura askotarikoan espezialista*, kultura-arteko gai oso trebeak diren pertsonen aipamena eginez, eta nazioarteko boluntarioriazaren antzeko eremu batekin.

Eskuartean dugun ikerketarako, kultura-arteko gaitasuna osagai funtsezkoa da GKEetan, garapena, lankidetzeta eta boluntariorzak arrakastaz betetzeko. Kultura-arteko gaitasuna funtsezkoa bilakatzen da Iparraldean, biztanleria inmigrantearen, gutxiengo etnikoen eta harrera egiten duen gizartearen arteko elkarbizitza bermatzeko, eta baita Hegoaldean ere, sentiberatze, lankidetzeta eta garapen proiektuetan, nazioarteko boluntariorzaren laguntzaz. Bi inguruetatik eskatzen da gogoeta egitea, gehiengoa osatzen duen gizartearen aldetik harrera hobe bermatzeko, eta esku-hartze sozialeko eta lankidetzako proiektuetan topo egitea errazteko.

Kultura-arteko gaitasuna prozesu gisa

Kultur gaitasuna eskuratzea, bizi osoa iraun dezakeen prozesua da. Zenbait autorek, Bennet eta bere lan-taldeak, adibidez, itzulbiderik gabeko eredu ebolutibo gisa planteatzen dute. Ikertzaile talde honek landu du proposamen bat, psikologia konstruktibista eta kognitiboaren hipotesietan oinarrituz, pertsonak kultur desberdintasunen aurrean dituzten erreakzioak adierazteko. Beren premisa nagusiak esaten duenez, pertsonok kultura desberdintasunak esperimentatzen ditugun neurrian, konplexutasunean areagotzen dira horiei buruz ditugun interpretazioak, kultura-arteko sentiberatasunean hazten goazen bitartean. Ereduak sei aro bereizten ditu, bi joera edo hurbilpen nagusitan pilatuz: *etnozentrikoa*, non norbere kultura baita lehen arreta gunea, edo beste era batera esanda, pertsonak bere bizitzako alderdi nagusi gisa bizitzen du bere kultura, eta bigarren joera, adituek *etnoerlatiboa* deitzen dutena, aurrekotik nabarmen desberdina, norbere kultura testuinguru konplexuago eta anitzago bateko parte dena, beste kulturak ere presente baitaude bertan.




Aro etnozentrikoak

Eredua hiru aro etnozentrikoak deskribatuz hasten da: ukapena, defentsa eta minimizatzea. Ikuspegi oso egozentrikoa da, bertan pertsona bere baitan eta bere kulturaren zentratutik baitago.

1. **Ukapena:** pertsonak bere kultura benetako bakartzat bizi du. Aro honetan, bi une bereiz daitezke, *isolamendua* bizitzeko zirkunstantzien ondorio gehiago dena norbere nahia baino, eta *bereizketa*, urrun mantentzeko eta beste kultur errealitateak ukatzeko norbere erabakiaren eta nahiaren ondorio dena.
2. **Defentsa:** nahiz eta kultur desberdintasuna begien aurrean eduki eta ez ukatu, pertsonak, aro honetan, bere kultura bizi du ona den bakartzat. Hau da, diferentzia aitortzeak, balorazio negatiboa du bere baitan. Ondorioz, mundua eta mundu-ikuskerak, “*gu*” eta “*haien*” arteko era dikotomikoan antolatzen dira, “*gu*” nagusia eta “*haien*” menpekoa. Autoreek hiru aukera posible ere bereizten dituzte hemen: *nagusigoa*, non puzten baitira norbere kulturaren neurri positiboak; *iraintzekoa*, non arreta “bestearengan”, bere diferentzia eta deskribapen gutxiesgarrietan jartzen baita; eta azkenik, *aldearantzikatzea*, non parekidetasun gutxiko bizipen sozialaren ondorioz, beste

kultura ikusten baita nagusi eta menperatzaile gisa, baina garrantzitsuena dena, hura ikusten da norbere kultur gutxiengoaren alienazioaren erantzule.

3. Minimizatzea: hirugarren uena da, pertsonak unibertsal gisa ikusten eta esperimendatzen ditu kultur osagaiak. Bere ikusmina eta interesa, antzekotasunak bilatzea da aldeak baino gehiago, eta aurkitzen ez baditu, behin eta berriz saiatuko da beste pertsona zuzentzen, bere ikusmina baiestea lortzeko. Minimizatzearen bi adierazpen bereiz daitezke: *unibertsaltasun fisikoa*, alderik nabarmenena minimizatzen duena, fisikoa edo fisiologikoa adibidez, eta antzekotasunak azpimarratzen ditu, esanez, “kolorearen gaintetik, denok garelako gizakiak eta denok oinarritzeko premia berberak ditugula, elikatze eta lo egiteko adibidez”, edo *unibertsaltasun transzendental*a, kultura desberdinetako pertsonen arteko antzekotasunak bilatzen dituen, batez ere, alderdi espiritual, politiko edo transzendentaletan oinarrituz.



Aro etnoerlatiboak

Aro etnozentrikoaren ondoren bigarren hurbilpena hasten da, autoreek *etnoerlatibo*a deitzen dutena, aurretik nabarmen desberdina, kultura, beste kulturak ere presente dauden testuinguru konplexu eta anitz bateko osagai bat gehiago bezala ikusten baita. Hiru aro bereiz daitezke: onarpena, egokitzapena eta integrazioa.

4. **Onarpena:** aldearen onarpenean, pertsonak ez du beste kulturak badirela onartzen bakarrik, baizik, giza portaera ordenatzeko ikuspegi eta formen sare konplexu bat gehiago gisa bizitzen du berea. Pertsonak kuriositatea eta errespetua sentitzen ditu kultur diferentziarekiko. Hauxe da *erlatibismoaren aroa*, bertan kultura bat ezin daiteke bere baitan besteak baino hobetzat hartu, ez ohituren eta egiteko erengatik (*jokabide erlatibismoa*), ez bere balioengatik (*balio erlatibismoa*).

5. **Egokitzapena:** pertsona gai da bere baitatik, bere egozentrismotik irteteko eta beste pertsonaren ikuspegiari jartzeko, “beste begi” batzuen bidez mundua ikusteko, beste aukera eta ideia batzuk aintzat hartzeko, eta baita bere jokaera intentzioz doitzeko ere, beste kulturarekin era eraginkorrean komunikatu ahal izateko. Autoreek bi une bereizten dituzte: *enpatia*, ikuspegiz aldatu eta beste pertsonaren sentiberatasunarekin konektatzeko trebetasuna. Eta *pluralismoa*, mundu-ikuskerara bat baino gehiago barneratu eta bereganatzeko gaitasuna.

6. **Integrazioa:** niaren esperientzia hedatzen den azken aroa da eta joan-etorriko, sartu-irteneko mugimendu bat sartzen du munduaren ikuskeretan. Aro honetako pertsonen identitateak bere egiten du kultur aldaera, eta gainditu egiten du gainera, aurrerago doa. Beren buruak prozesuetan ikusten dituzten pertsonak dira eta, neurri batean, kulturaz “kanpo” sentitzen dira (*kulturaren bazterrekoak*). Bereiz daitezke bertan, *testuinguruaren ebaluazioa*, egoerak ebaluatzeko erreferentzia marko desberdinak erabiltzeko gaitasunaz ari dena, eta *testuinguruko marjinaltasuna*, norbere identitatea elaboratzeagatik bereizten dena, ez dago kulturaren oinarrituta. Integrazioa sarriago agertzen da, iraupen luzeko gutxiengo etnikoetan eta erbesterratueta.

Jarraibide hauekin egin du ikerketa talde honek IDI (*Intercultural Development Inventory*) delakoa, 50 itenez osatutako galdetegia bera, bost eragileri dagokien informazioa ematen duena, fidagarritasun maila handikoak guztiak.

Gure inguru hurbilenean eta hezkuntza munduan, Vilak (2003a, 2003b, 2004) baiesten du, nerabe arteko esperientziak beste kulturetako pertsonekin, kultura-artearen sentiberatasuna hobetzen laguntzen duela. Zehatzago oraindik, kultura-artearen sentiberatasuna areagotu egiten da beste hizkuntza bat menderatzeko, integrazioaz gozatzeko eta beste kulturetako pertsonekin adiskidetasunak eta harreman pertsonalak sortzeko gai garen neurrian.

Guk erreakzionatzeko kultur diferentziak

Kultura batean partehartzeak, buru-programa kolektibo multzo bat barneratzea esan nahi du, ezagutzak eta gaitasunak eskuratzea maila sozial, kultural eta ekonomiko desberdinetan parte hartu ahal izateko. Ikuspegi honetatik, kulturak komunitate baten bizitza pribatuan eta publikoan parte hartzeko trebetasunak emango ditu edo, gaur egun, baita herri globalean parte hartzeko ere.

Hofstede kultura gutzietan dauden bost eredu edo neurri kultural nabarmendu zituen, beroietan bi erakargune edo ertz deskribatzen dituelarik: hierarkiaren distantzia, ziurgabetasuna saihestea, indibidualismoa versus kolektibismoa, maskulinitasuna versus femininitasuna eta aldi bateko orientabidea epe motzera versus epe luzera.

- 1. Hierarkiaren distantzia:** lehenbiziko neurriak pertsona arteko desberdintasunak, hau da, kultura, osasuna, adina, sexua, heziketa maila, indar fisikoa, lorpen pertsonalak, lanbidea, jatorri familiarra edo beste ezaugarriak konponterakoan sortzen diren irtenbide desberdinekin du zerikusia. Bi erakargune (7. laukia) bereizten dira, lehen ertzean: *hierarkia tarte handia* duten kulturak daude, Malasia, Eslovakia, Guatemala, Panama eta Filipinak bezalako herrietan dagoena, hierarkia soziala, obediencia eta agintaritza eta bere ordezkarienganako errespetua baloratzen direna, familian, eskolan, lanean eta erakunde publikoetan. Beste ertzean, *hierarkia tarte txikia* dago, eremu gutzietan harreman parekideak baloratzen dira, desberdintasunak, distantziak eta hierarkia minimizatzen dira. Austria, Israel, Danimarka, Zelanda Berria edo Irlanda bezalako herrialdeetan agertzen zaigu.

7. laukia. Hierarkia tarte handia vs. txikia duten herrialdeak

Hierarkia distantzia handia

Latinoamerika,
Asia



Hierarkia distantzia txikia

Herrialde anglosaxoiak

2. Ziurgabetasuna saihestea: bigarren neurriak ziurtasunik gabeko etorkizunak eragiten duen estres mailari, eta estuasun eta gatazkei aurre egiteko moduari, egiten dio aipamen, emozioen adierazpidearen eta erasoaren kontrolaren bidez. Hemen ere bi erakargune nabarmentzen dira (8. laukia): Grezia, Guatemala, Portugal eta Uruguai bezalako herrialdeek, *ziurgabetasuna arrisku gisa* esperimentatuz heltzen diote etorkizunari. Horregatik, nahiago dute ziurgabetasuna saihestea eta arau argi eta zehatzak ezartzea gizartean bizitzeko. Herrialde hauek, katolikotasunari edo islamari loturiko sinismen erlijiosoen bidez jartzen dira harremanetan elkarrekin. Herrialde hauetan, pertsonak etorkizunaz kezkatuta bizi dira, estuasun maila handiak bizi dituzte eta aldaketarako zailak agertzen dira. Beste erakargunean, Singapur, Jamaika, Danimarka, Suedia, Hong Kong edo Irlanda bezalako herrialdeak agertzen dira, eta *ziurgabetasuna jakin-min gisa* bizi dute, hauen kulturetan malgutasunak eta inprobisazioak lehentasun gehiago dute, guneko sozialetan, eta egunean gehiago bizi dira, orainaldian zentratuz. Ez dute, jokabide soziala kontrolatzeko, arau eta erritmoak ezartzea premia kotzat hartzen, eta pertsona arteko desberdintasunak eta desakordioak ontzat hartzen dituzte, jokabide sozial kopuru handiagoa onetsiz, eta baita aldaketa sozialerako arriskuak bere eginez ere. Herrialde eta kultura hauen artean, sarriago agertzen dira budismotik hurbil dauden sinismen erlijiosoa.

8. laukia. Ziurgabetasuna arrisku vs. jakin-min

**Ziurgabetasuna
arrisku /edo mehatxu gisa**

Grezia, Portugal,
Guatemala,
Uruguai



**Ziurgabetasuna
jakin-min /edo aukera gisa**

Singapur, Jamaika, Hong
Kong, Danimarka, Suedia,
Irlanda

3. **Indibidualismoa versus Kolektibismoa:** hirugarren neurria, niaren edo pertsonaren irizpidearen arabera, bere autonomia eta idiosinkrasiaren arabera, eta beste pertsonekin eta gizartearekin talde abstraktuago gisa duen harremanaren arabera definitzen da (9. laukia). Kultura *indibidualistagoek*, independentzia, autonomia, nor bere burua aski izatea eta pribatutasuna bezalako interesak eta balio indibidualak lehenesten dituzte. Pertsonak ardurasuak izan behar dute eta beren buruak, eta beren hurbileko izaki maiteenak, zaindu behar dituzte. Harreman sozialak boluntariorotasunaren arabera erazten dira eta beren aldi baterako izaera onartzen da. Estatu Batuak, Australia, Britainia Handia eta Kanada bezalako adibideak herrialderik indibidualistenen artean aurkitzen dira Hofstederen azterketan. Beste erakargunean aurkitzen dira Guatemala, Ekuador, Panama, Venezuela edo Kolonbian presente dauden kultura kolektibistak, taldera bideratuak daude, garrantzia ematen diete interdependentziari eta lankidetzaren harremanei, taldearekiko leialtasunari, sare sozial zabal eta kohesionatuari. Tradizioa, talde arauenganako obediencia eta betebeharraren sentimendua baloratzen dituzte. Nahiz eta harreman sozial ugari ez izan, dituztenak oso hurbilak, biziak eta estuak dira. Borondate ona erakusten dute beren taldearekiko, eta distantzia kanpokoe-kin. Taldearen ongizatea eta premiak lehenesten dituzte bakoitzaren premien aurretik. Kolektibismoaren adibide bat da Latinoamerikako kulturen *familismoa*, bertan, familia nuklear eta zabaleko pertsonekin identifikazio sendoa gertatzen baita, leialtasun, elkarrekikotasun eta solidaritate sentimenduekin. Hofstederen arabera, indibidualismo-kolektibismoaren iragarlerik onena, herrialdearen garapen ekonomikoaren gradua edo maila da. Ekonomikoki garatuen dauden kulturek, indibidualista izateko joera gehiago dute, aldiz, ekonomikoki gutxiago garatutako kulturek kolektibistago izateko joera dute.

9. laukia. Indibidualismoa vs. kolektibismoa

Indibidualismoa


Herrialde anglosaxoiak,
Ipar Europa



Kolektibismoa

Mediterraneoko Europa,
Herrialde arabiarak,
Afrika, Latinoamerika,
Asia

4. Maskulinitasuna versus Femeninitasuna: laugarren neurria ere lorpena versus zaintza pertsonala bezala deitzen da, eta rol femeninoaren edo maskulinoaren banaketarekin du zerikusia, eta baita, lorpen indibidualaren, asertibitatearen eta gaitasunaren balorazioarekin ere. Maskulinitasun handiko, edo lorpenean oinarritutako kulturak, askonahia, eraginkortasuna, gogortasuna, instrumentaltasuna eta rol sexualen banaketa zurrunagatik nabarmentzen dira. Femeninitasun handiko kulturek, armonia, pertsona arteko elkartasuna, solidaritatea, lankidetzeta eta partekatze afektiboa baloratzen dituzte. Ez zaie hainbesteko garrantzirik ematen kanpoko emaitzei, baizik arreta, bizikaltatea edo beste pertsonenganako zerbitzu-lana bezalako berezko alderdiei jartzen zaie. Genero diferentziak ere ez dira hainbeste nabarmentzen. Maskulinitasunean puntuaziorik handieneko herrien artean aurkitzen dira: Eslovakia, Japonia, Hungaria, Austria eta Venezuela. Femeninoenen artean daude: Suedia, Norvegia, Holanda, Danimarka eta Jugoslavia (10. laukia).



5. Orientabidea epe luzera versus epe motzera: pertsonen, orainari eta geroari buruzko ahalegin eta kontzentrazio mailaz ari da. Epe luzea baloratzen duten kulturek, pertsona arteko harremanetan, iraunkortasuna, apaltasuna eta estatusa sustatzen dituzte (Txina, Hong Kong, Taiwan, Japonia eta Vietnam). Epe motzean oinarritutako kulturetan, tradizioak, egonkortasuna, elkarrekikotasuna, mesedeak eta emaitza azkarrak estimatzen dira (Pakistan, Txekiar Errepublika, Nigeria, Filipinak eta Kanada) (11. laukia).

11. laukia. Orientabidea aldi baterako epe luzera vs. epe motzera

***Orientabidea
epe luzera***

Txina, Hong Kong,
Taiwan, Japonia,
Vietnam



***Orientabidea
epe motzera***

Pakistan, Txekiar
Errepublika, Nigeria,
Filipinak, Kanada

6. *Espiritualtasuna versus Materialismoa*: talde edo komunitate batek, transzendentziari eta erlijiotasunari eta kultuaren praktikari emandako garrantzia aipatzen ditu. Horri kontrajarriz, balio nagusi honen aurrean, ongizatea, kontsumoa eta materialiazkoa baloratzeko lehentasuna. Egungo globalizazioa mendebaldean eta garapenean dauden gizarteetara zuzentzen ari dela dirudi, kontsumoa bera izanik bigarren joeraren interesgune, kontsumo materialaren kontzeptua bera gainditzearaino, esperientzia, aisia eta harremanen kontsumora bideratuz. Horri kontrajarriz, Hegoaldera elkartutako gizarteak, garrantzitsutzat jotzen dituztela dirudi “*beste mundua*”, transzendentzia eta espiritualtasuna bere forma anitzetan.

7. *Goi Testuinguruko Komunikazioa versus Behe Testuinguruko komunikazioa*: goi testuinguruko komunikazioan oinarritutako kulturek, hitzezko komunikazio gutxi erabiltzen dute, bidalitako mezuaren zati bat bere egiten baita testuinguru fisikoan. Garrantzi handia ematen zaio isiltasunari (Txina, Java edo Japonia), zeharkako eta errespetuzko estiloari, erabilitako tonuari eta pertsona esanguratsuak egoteari edo ez egoteari. Mezua orokorretik espezifikora igarotzen da zenbait itzulingururen bidez. Sarritan “bai” esatea bera, gerta daiteke besterik gabe, zuzeneko ezetza saihesteko kortesiazko bide. Komunikazio estilo hau, kultura kolektibistetan sarriago ematen da. Bestaldeko ertzean dago, *behe testuinguruko komunikazioa*, honek informazioaren zati nagusia era esplizitu eta hitzezkoan erabiltzen du, arrazoibideari eta etorriari garrantzi handia emanez. Komunikazioa zuzena da, eta espezifikotik orokorrera igarotzen da. Komunikazio modu hau kultura individualistetan gertatzen da bereziki.

12. laukia. Goi testuinguruko komunikazioa vs. behe testuingurukoa

Goi testuingurua

Latinoamerika (Mexiko),
Asia (Japonia, Arabiarrak)

Europa
Hegoaldeko
herriak

Behe testuingurua

AEB, Anglosaxoiak,
Europa Iparraldea

8. Denbora Polikronikoa versus Denbora Monokronikoa: denboraren zentzua era malguan hartzeaz ari da, *denbora polikronikoan* aldi bereko ekintzak egiteko aukerarekin, denboraren zentzua era finkoago eta zehatzagoan hartzearekin kontrajarriz, *denbora monokronikoan* (13. laukia) agenda batean oinarrituz eta denboraren kontrol handiagoz ari baita. Denbora monokronikoaren ikuspegia lineala, mugatua eta unitateetan da, polikronikoa, aldiz, zirkularra, mugagabea eta jarduerak aldi berean egiteko aukeraz beterikoa.

13. laukia. Denbora polikronikoa vs. monokronikoa

Denbora Polikronikoa

Afrika

Latinoamerika

Denbora Monokronikoa

Europa

Zailtasun hauek agerian uzten dituen azterketetako bat Espainiako estatu osoan egin da, ERASMUS/SOCRATES (Oliveras, 2000) programako ikasleen lagin batez osaturik, nagusiki. Herrialde hau bisitatzen duten ikasleek positibo eta atseginizat dute “kultura espainiarrean”, harreman sozialak burutzeko erraztasuna, eta baita bertako jendearen izaera irekia, abegikorra eta alaia ere. Estimatzen dute bertako biztanleen bizitzeko era, kalera sarri irtetea, bertako janaria eta diruarekin duten hartu-eman. Alabaina, zailtasun handiak aurkitzen dituzte hemengo gizartera egokitzeko, adibidez, denbora ulertzeko eran, zeinen errespetu gutxi dioten ordutegiari, langileen ziurgabetasuna, eta sarritan, lanaren ezegonkortasuna, edo norbanakoen erantzukizun falta eta alkoholaren eraginpean gidatzearen onarpena. Kaleetan garbitasun gutxi sumatzen dute, edo pertsonak ozenezi eta gehiegi hitz egiten dutela, pertsona arteko distantzia gutxi errespetatzen dutela eta oso azkar jotzen dutela kontaktu fisikora.

Euskal Autonomi Erkidegoan ere, egin da azterketa bat, orain gutxi (Basabe, Zlobina eta Paez, 2004), inmigranteen eta euskal biztanleen artean sumatzen den distantzia kulturala jasotzen duena, kultur talkan eragina duen aldagai gisa, eta distantzia sozialaren, bizitzeko erritmoaren edo kontsumismoaren maila desberdinetan adierazten dena².

Especialistentzat garrantzitsua da kultur talkaren zergatia ulertzea, horrela erraztu baitaitezke, harremanetan sartzen diren pertsona guztien kultura-arteko gaitasuna areagotuko duten interbentzio gakoak.

Kultura-arteko gaitasunaren konplexutasuna eta faktore-aniztasuna

Aurrez aurkeztutakoa kontuan izanez, ondoren adierazten ditugu jarraian datozen kultura-arteko gaitasunaren lau faktoreak:

- a. Kultura artekotasunaren kontzientzia:* kontzientzia beti da “norbere kontzientzia” eta “norbera beste pertsonekin harremanean”, kontzientzia kritikoa ere bada gainera, norbere burua eta besteara zalantzan jarriz.
- b. Kultura artekotasunerako jarrerak eta balioak:* hasiera puntua gizalegezko etika batean koka daiteke, gutxieneko balioak edo balio unibertsalak defenda ditzakeena, esate baterako, berdintasuna, aniztasuna edo pluraltasuna

² CD erantsian kontsulta daiteke (bakarrik erderaz eskuragarri).

eta pertsona ororentzako errespetua, dena delarik bere egoera, jatorria edo kultura. Gutxieneko balio hauen ondoan, irekitasun, kuriositate, interes, estimu eta sinismenei buruzko iritziaren atzeratze jarrerek, lagun dezakete elkarriketa eta topaketa honetan.

c. *Kultura artekotasunaren ezagutza:* kultura-arteko gaitasunak eskatzen du, gainera, testuinguru sozialean presente dauden kulturen ezagutza lagunduko duten izaera kognitiboko alderdiak bereganatzea; beren ohiturak, komunikazio estiloak, beren ekoizpenak, beren balio hierarkia, beren arauak eta beren hizkuntza. Ezagutza guztiz loturik aurkitzen da, kultura-arteko kontzientziari, ezaguerari eta norbere buruaren eta bestearen ezagutzari. Sarri askotan norbere kultura ez ezagutzea izaten da lehen zailtasuna, hori ezagutzeak beste kulturetara hurbiltzeko eta ulertzeko prozesuak errazten ditu-eta. Beraz, helburua, ez da ezagutze hutsa, norberaren eta bestearen kultura aitortzea eta baloratzea baizik. Lehenbizi ezagutu, gero errespetatu, ulertu eta partekatzeko. Zenbait autoreren ustez, norberearen ezagutza eta norberearen kontzientzia izango lirateke kultura-arteko heziketaren bide bakarrak, izan ere norberetik irtete orok, ezinbestez, bestearen orokortzera eramango gintuzketelako.


d. *Kultura artekotasunerako abileziak edo trebetasunak:* azkenik, kultura-arteko gaitasunak aurreko osagaiak lanean jarriko dituen abileziak eta trebetasunak behar ditu. Oso garrantzitsutzat hartzen dira entzuteko gaitasuna, empatia, asertibitatea, sormena eta uko egiteko gaitasuna. Gainera, gatazken tratamenduak abilezia hauek, talka edo kontraesan egoeretan, testuinguruan ulertzen laguntzen du. Abilezia hauek guztiak, komunikazio ekintza gisa transmititzen dira. Kultura-arteko gaitasuna dago, elkarren arteko ekintza bat egokitzen hartzen denean, edo hori gertatzen den lekuko itxaropenentzat eta kultur testuinguruentzat aproposa eta, aldi berean, eraginkorra denean, tartean diren pertsonak lortu nahi dituzten helburuak lortzen laguntzen duelako. Kultura-arteko komunikazioak testuinguru honetan erabilitako hitzezko eta ez-hitzezko sistema oso bat eskatzen du:


- ✓ *Hitzezko komunikazio sistema:* hizkuntza, ez bakarrik kultur errepresentazioaren eta komunikazio aseptikoaren sistema gisa, baizik testuinguruan txertatutako tresna gisa, erabilera eta esanahi desberdinez beterik.
- ✓ *Ez-hitzezko komunikazio sistema:* keinuak, begirada, jarrera edo lurraldea, komunikazio sistema gisa, ez da beti kultura guztietan partekatua. Ez-hitzezko komunikazio sistemak, edozein harremanetan zentzumenak erabiltzeak duen garrantzia aipatzen du. Horretarako kultura ezagutzea (gaitasun

kognitiboa) komeni da, gehien azpimarratzen diren zentzumenak zein diren jakiten laguntzeko, sustatzeko eta kontuan izateko horrela.

- ✓ *Komunikazio estiloa*: hitzeko eta ez-hitzeko komunikazio sistemak aktibatzea eta praktikan jartzeak estilo, gutxi-asko, zuzenak deskribatzen dizkigute. Kultura batzuek gaiari itzulingururik gabe heltzen dioten bitartean, beste batzuek, testuinguruan jarri, eta gaira pixkanaka hurbildu beharra daukate.

Laburpen gisa, eranstean dugun grafikoan, kultura-arteeko gaitasunaren funtsezko osagaiak aurkezten ditugu.





Boluntarioen
prestakuntza
eta esperientziaren
betekizuna



Prestakuntza

Nola prestakuntza hala laguntasuna, bi osagai giltzarri eta elkarren osagarriak dira, boluntario-programa baten helburuak betetzeko.

Boluntarioritza, esperientzian zehar gertatzen den etengabeko prestakuntza prozesua da, hiru etapa hartzen dituelarik: kultura-arteko esperientziaren AURRETIK, BITARTEAN eta ONDOREN. Erakunde askok ikasketa prozesua, atzerriko egonaldien aurretik eta bitartean azpimarratzera jotzen duten bitartean, jatorrizko herrira itzultzeak³, gure ustez, duen garrantzia nabarmendu nahi dugu, eta nola, atzerrian gertatu den ikasketak jarraitu egiten duen bere garapenean kultura-arteko esperientzia amaitu eta gero ere.

“Aurretik”

Garatu diren materialetako asko prestakuntza garai honetan zentratzen dira eta, kultura-arteko eskumenaren zenbait faktore eragile lantzeko kezka, partekatzen dute elkarrekin: kontzientzia, ezagutza, jarrerak, balioak, portaera eta sentiberatasuna. Prestakuntza garai hau funtsezkoa da, izan ere, berak jartzen baititu oinarriak atzerrian gero izango duen esperientziarako. Pertsona, kultura-arteko topaketa luze baterako egoki prestatuta ez badago, areago izango da bere porrot arriskua.

a. Kontzientzia

Apartatu honetan bi alderdi nabarmendu behar ditugu: *aldaketaren* kontzientzia, eta bere ondorio pertsonalak, eta *kultura* (norbera eta besteara) iraunkorraren eta, aldi berean, erlatiboaren kontzientzia.

- ✓ **Aldaketa kontzientzia:** nazioarteko boluntario izan behar duenak jakitun egon behar du, aurre egin behar dion egoera berriak, *aldaketa kuantitatiboa* ekarriko duela, eta horri baliabide eta irtenbide materialen bidez (senda-

³ Iritzi honekin bat datoz, 2007ko ekainaren 12an Deustuko Unibertsitatean izandako topaketan izan ziren Latinoamerikako erakundeetako arduradunak.

gaiak, material didaktikoa, hizkuntzaren hobekuntza...) aurre egin dakiokeela, baina badagoela *aldaketa kualitatibo* nabarmen bat ere, eta nekez bis-taritzen den aldaketa garrantzitsua eskatzen duela.

“Aurretik” egin beharreko prestakuntzak, garrantzi berezia eman behar lioke gure ahalmenen inguruko auto-gogoeta sakon bati: komunikazioan, gataz-kak konpontzen, frustrazioaren eta ziurgabetasunaren aurreko tolerantzian, bakardadearen tolerantzian eta iraunkortasun fisikoan, eta baita gure balioetan, autonomian eta sendotasunean ere.

- ✓ **Norbere kulturaren kontzientzia:** geure kulturaren kontzientzia hartzea da beste gai ohikoetako bat, prestakuntza programetan. Kontzientzia hartze honek, norbere kulturaren balioak deskribatzea eta definitzea du oinarri, batez ere, eta nola definitzen gaituen honek pertsona gisa. Gure balioak, portaerak, jarrerak eta, azken batean, gure mundua ulertzeko era, geure kulturaren oinarrituta daudela ulertzean, errazago izango da kultura desberdi-nak daudela ulertzea.

b. Ezagutza

Aurreko prestakuntzaren beste alderdi gakoetako bat ezagutza da, hiru alorretan zentratuta batez ere: antolakuntza eta proiektuak, etorkizuneko lanekin zerkusia duten alderdi teknikoak eta iritsi behar duen herrialdeko kultura.

c. Jarrerak, motibazioak eta itxaropenak

Boluntario-prestakuntzak, aintzat hartu beharko lituzke, aldagarri pertsonalekin eta jarrerekin lotura duten alderdiak, bideratuak, beti ere, nola bizitokiaren lekualdatzearen eta denbora luzeko urruntzearen ondoriozko arazoak konpentsatu ahal izateko, hala harrerako komunitateetan lana hobeki egiteko eta integrazteko behar dituen trebetasunetarako.

Jarrerei dagokienez, prestakuntzak, aldi berean, zentzu bikoitz batean bideratua egon behar luke: jarrera aldagarrien inguruan gogoetarako ereduak emateko eta ariketa praktikoak, jarrera horri loturiko ahalbidea hobetzeko. Kalitatezko entzunaldia, enpatia edo bitartekaritza bezalako edukiak, aintzat har daitezke apartatu honetan.

d. Etika eta balioak

Nazioarteko boluntario-programekin koherente izateko, programa horien helburu diren justiziaren eta solidaritatearen balioekin zerkusia duen prestakuntza etikoa eman behar da.

Herritarrek orokorrean parte hartzeko aukerak ematen ditu boluntarioen inguruak. Horrexegatik, nazioarteko boluntariotzak, pertsona guztientzako mundua eraikitzen bideratzen du herritargo aktiboa. Prestakuntzak, ezagutza eta gogoeta prozesuak eragin behar ditu, giza eskubideen, herritarren partehartzearen, hiritargo globalaren, globalizazioaren eta elkarren arteko mendekotasunaren inguruan.

Garrantzitsua da aitortzea, talkak gerta daitezkeela kultura baten eta bestearen balioen artean. Zenbaitetan, beharrezko lehen urrats gisa, balioen gaiari helzen zaio, norbere identitatearen kontzientzia hartzeko, konparaketara igarotzeko bigarren urratsean.

Garrantzitsua da nabarmentzea, beste kultura batekin topo egiteak, norbere balioak eta bere kulturarenak zalantzan jartzera eraman dezakeela parte hartzen duen pertsona.

e. Portaera

Portaera, kultura-arteko gaitasunaren alderdi bat da, eta lantzen oso zaila dena irten aurretik. Kultura-arteko gaitasunerako portaerak praktikan jartzeko moduren batzuk, dramatizazioen eta rol-jokoen jarduera bidez landu daitezke.

Partaideen hasierako prestakuntzak, nazioarteko programa batean, bi alderdiak hartu behar ditu aintzat: prestakuntza teorikoa eta prestakuntza praktikoa.


“Bitartean”

Laguntza handia ematen dute norbere gogoetarako erabiltzen diren zenbait estrategiak, aipatzekoak horien artean, pertsona aholkularia, jarraipenaren egunerokoa edo auto-ebaluaziorako galdera-sortak.

a. Pertsona aholkularia edo tutorea

Bere zeregina oso nabarmena da prestakuntza prozesuko etapa guztietan. Alabaina, esperientziaren “bitartean”, gomendatzen den aukeretako bat da, nazioarteko elkartruke batean parte hartzen duen pertsonari pertsona aholkulari autoktono bat izendatzea. Egoki prestatutako pertsona aholkulari batek, harrerako kulturarako gidari lana egiten du eta, gainera, pertsona partehartzai-learen jokaera begira dezake, bere komunikazio estrategiak eta elkarreragina hobetze aldera.

Nahiz eta osagai giltzarri eta funtsezkoa izan, beti ez dago argi bere irudiaren eta prestakuntzaren profila, eta era horretan, zenbaitetan, arriskua dago inprobisazioz jokatzeko eta bere lanari behar duen baliorik ez emateko. Nolanahi ere, boluntario izan behar duenari argitze prozesu honetan, bere buruaren eta bere kulturaren auto-aurkikuntza honetan laguntzeko gai den pertsona izango da, boluntarioari bere nahiak eta itxaropenak identifikatzen eta modu objektiboan hartzen lagunduko diona. Etapa honetan, pertsona aholkularia, aholku emaile bilakatuko da, anzeko esperientzia batetik pasatua denez, gai izango dena, konfiantza giroa sortzeko, entzuteko eta galdera egokiak planteatzeko, irakurgaiak emateko eta gogoetak elikatzeko, aztertzeko eta ondorioak ateratzeko, plangintzak egiteko eta helburu posibleak ezartzeko, ebaluatzeko eta lortutako lorpenak nabarmentzeko. Prestakuntza prozesu hau ondorengo irudi honetan adieraz daiteke:



Iturria: Laguntza Erlazioaren Eredu Eklektikoa (Marroquín, 2004).

Eredu honen faseak ez dira linealak, zirkularrak baizik, boluntarioa azalerazten doan heinean, alderdi zehatzei hel dakiekeelarik.

b. Jarraipenerako tresnak

Egunerokoa: aholkulariaren ereduaren ondoren, eguneroko baten erabilera ere oso gomendagarria da.

Auto-ebaluaziorako galdera-sortak: bereziki nabarmenak dira auto-ebaluaziorako tresna gisa, egonaldian zehar zenbait garaitan betetzen badira. Partehartzaileari, bere hizkuntza abileziak bezala kultura-artekoak ere nola joan diren garatzen ikusten laguntzen diote.

c. Amaierako jarduerak

Egonaldi amaieran, interesgarri gerta daiteke partaideek zenbait jarduera izatea, beren esperientziaren amaiera gisa, etxera itzultzeko presta daitezen.

“Ondoren”

Boluntariotzaren bizipenak prestakuntza prozesu bat du berekin, eta zenbait gaitasun eta ezagutzatan hazteko eta ikasteko aukeratzat hartu beharko lirateke gainera, eta hauek, ebaluatu ez ezik, bizitza osoan zehar garatzen eta elikatzen jarraitu beharko lirateke. Etopa honetan aintzat hartu beharreko zenbait alderdi nabarmenduko ditugu.

a. Alderantziko kultur talkari buruzko informazioa

Partaideak jakinean ipini, etxerako itzulerak nola eragin diezaiekeen, batez ere, emozionalki.

b. Auto-ebaluazioa

Berriz ere ikusten dugu auto-ebaluazioa tresna erabilgarria dela ikasketa modu hauen prozesuan. Kontuan izan behar da, partaidearen ikasketari laguntzeko era hau, luzetara erabiltzen denean (aurretik, bitartean, ondoren), ez dela bera sentiberatzeko bitarteko bikain bat bakarrik, baizik baita prozesu honek, orokorrean, antzeko esperientzietan parte hartzen duten pertsona guztiei nola eragin diezaiekeen neurtzeko ere.

c. Elkarrizketak eta eztabaida taldeak

Parte hartzaileak beren esperientziei eta ikasketa prozesuei buruzko elkarrizketa batean sartzeko bide egokiak dira prozesu hauek. Bizipena “dekantatu” eta antzeko esperientziak izan dituzten pertsonekin partekatu ahal izatea, harrerako gizartearen eta jatorrizkoaren arteko trantsizioa samurrago egiteko modua da. Talde hauen eginkizunen artean nabarmentzen ditugu, parte hartzaileen artean komunitatearen sentimendu psikologikoa eta beste pertsonetikiko kide-tasuna eta lotura sentimendua sustatzea nabarmentzen dugu, eta baita beren artean aurre egiteko estrategia eraginkorrak emateko aukera ere.

d. Martxan jartzea

Beste herrialde bateko kultura-arteko esperientzia bat amaitzeko, eta etengabeko ikasketa bat sustatzeko modurik onena, esperientzian zehar eskuratutako ezagutzak eta trebetasunak martxan jartzea da. Hori egiteko modu egokia, atzerriara irtengo duen hurrengo taldearekin esperientzia hori partekatzea, edo kulturen arteko elkarrizketaren garrantziaz zeure herritarrek sentiberatzea izan daiteke.

Ikusi dugun bezala, prestakuntza eta jarraipena, ezinbestekoa da boluntarioa dagoen etapara egokitzea, irten aurretik, atzerrian dagoen garaian, edo etxera itzultzerakoan. Etapa bakoitzak prestakuntzarako erronkak eta aukerak eskaintzen ditu, baina, baliabide egokiekin, posible da partaideak prestatzea, ezagutza mailan eta pertsonalki hazten lagunduko dieten esperientzia baterako.

Ondoren prestakuntza modu desberdineko taula bat eransten dugu, argitarapen honekin batera doan CDean aurki daitezkeenak.

16. laukia. Prestakuntza eredu biren ikuspegi konparatiboa, kultura-arteko gaitasunean

Ikastetxea	Aurretik	Bitartean	Ondoren
Lancaster University	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Helmugako herrialdeei buruzko probak: Kontzientzia eta ezagutza ✓ Norbere kultur nortasunaren proba: Kontzientzia ✓ Kultura-arteko gertakariak: Ezagutza, Kontzientzia ✓ Elkarrizketa pertsonalak 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Egonaldiaren egunerokoa: Kontzientzia, ezagutza, sentiberatasuna, portaera ✓ Ikasketaren auto-ebaluazioaren galdera-sorta ✓ Elkarrizketa pertsonalak 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Kultura eta hizkuntza ikasketaren auto-ebaluazioa ✓ Galdera-sorta ✓ Eztabaida taldeak ✓ Elkarrizketa pertsonalak
University of the Pacific School of International Studies	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Auto-ebaluazio jarduerak: Jarrerak ✓ Kulturaren definizioak: Ezagutza ✓ Balioak eta portaerak konparatu eta kontrastatu: Ezagutza eta jarrerak ✓ Kultura-arteko komunikazioa: Ezagutza ✓ Kultur talka: Sentiberatasuna ✓ Kultura-arteko gertakariak: Ezagutza, kontzientzia 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Aholkularia ✓ Egonaldiaren egunerokoa: Kontzientzia, ezagutza, sentiberatasuna, portaera ✓ Egonaldiaren amaierako jarduerak: ikusteko erreportajea egin ✓ Helmugako herrialdean kulturalki era egokian agurtu ✓ Ulertzeko moduen auto-ebaluazio ariketak 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Alderantziko kultur talkaren informazioaren irakurketa ✓ Itxaropenei buruzko auto-ebaluazio ariketak ✓ Itzulerako erronken kontzientzia hartzea ✓ Kultura-arteko ikasketaren auto-ebaluazioa ✓ Kultura-arteko trebetasunak eguneroko bizitzan erabiltzeko iradokizunak

Esperientziaren zeregina prestakuntzan eta jarrera aldaketan

Kontaktuaren hipotesiaren teoriak baiesten du, aurkako edo gatazka egoerako talde sozialetako norbanakoen artean zenbat eta kontaktu gehiago egon, orduan eta estereotipo ezkor gutxiago eta elkarren arteko antipatia gutxiago dagoela. Kontaktuak, beraz, harremanak hobetuko lituzke talde barruan, pertsona inplikatukoak eta berdinetik berdineran lanean aritzeko prest daudenak lortuz.

Baiespen nagusia da, beraz, baldintza onenetan taldeen artean izandako kontaktuak, aurreiritzia era eraginkorrean gutxitu dezakeela. Kontaktuaren hipotesiaren formulazioak “baldintza onenak” ñabardura sartzan du. Azalpen prozesuak ondorengo argudioak jarraitzen ditu:

- ✓ Estereotipo sozialak, isolamendu sozialetik sortzen dira, eta kontaktu pertsonalaren bidez hausten dira.
- ✓ Kontaktoa egokia denean, eta ingurua egokia, orduan aurreiritzia eta diskriminazioa gutxitzen da. Bestela, gerta daiteke kontaktuak eraginik ez izatea, edo baita aurkakoa izatea ere. Hau da, estereotipo negatiboak hautsi beharrean, sendotu eta indartzea.

Alabaina, egoera hau gertatzen ez diren kasuak nabarmen ditzakegu. Beraz, hipotesi hau betetzeko, ondoren adierazten ditugun berriazko baldintza batzuk gertatu behar dute:

1. Talde etniko desberdinetako kideen arteko kontaktuak, jarrera aldaketak eragitera jotzen du talde horien artean.
2. Aldaketaren norabidea, neurri handi batean, kontaktoa gertatu den baldintzen arabera da; baldintza egokiek, aurreiritzia gutxitzen dute, baina desagokiek, bi taldeen arteko aurreiritziak eta tentsioa areagotu ere egin dezakete.
3. Aldaketa gertatzen bada, ez du esan nahi jarreraren norabidea aldatu denik, baizik jarreraren intentsitatean bakarrik ere gerta daitekeela aldaketa.
4. Kasu askotan, kontaktuaren ondoriozko jarrera aldaketa, zenbait arlotara mugatzen da, esate baterako, lan egoeretara, baina hauek ez dira beste arloetara orokortzen.

5. Alabaina, kontaktuaren hipotesia ikertzen duten azterketa gehienek, aurreiritzia gutxitzen duten espero izandako emaitzak lortu arren, emaitza hauek, egoeren edo baldintza esperimental egokien hautaketaren ondorio izan daitezke. Ez da segurua talde desberdinen arteko kontaktuak, hain baldintza egokietan gertatzea bizitza arruntean.
6. Kontaktuan aurreiritziak gutxitzen laguntzen duten baldintza egokiak dira:
 1. Estatus berdintasuna, taldeetako kide desberdinen artean, hau da, botere arteko oreka.
 2. Kontaktua gehiengoko kideen eta gutxiengoko goi estatuseko kideen artean.
 3. Kontaktu horren agintaritzza, edo aldeko giro soziala, eta sustatzailea behar da. Beste era batera esanda, zuzenbide esparruan eta integrazioa eta berdintasuna laguntzeko politika sozialetan, berariaz adierazitako babes sozial edo erakunde mailakoa behar da.
 4. Kontaktua ez kasualitatez edo azalekoa, izaera hurbilagoko edo sakonagokoa baizik.
 5. Kontaktu atsegin eta indartzailea.
 6. Lankidetzza eta lanen garapena, elkarren artekoak edo balioen rankingean garrantzizkoak diren helburuak bilatuz.
7. Aldez aurreko aurreiritzia indartzea zuzeneko ekintza duten baldintza dese-
giak dira:
 1. Taldeen arteko lehia eragiten duten kontaktu egoerak direnean.
 2. Kontaktua atseginik gabea, gogoz kontrakoa eta tentsiozkoa denean.
 3. Taldeetako baten izena edo estatusa gutxituta gelditzen denean kontaktuaren ondorioz.
 4. Taldeko kideak edo taldea, oro har, frustrazio egoera batean daudenean.
 5. Kontaktuak beste pertsona oztopatu edo zalantzan jartzen duten estandar etiko edo moralak dituztenean.
 6. Gutxiengoan dagoen taldeko kideek estatus apalago bat dutenean edo beren ezaugarri garrantzitsuren batean apalagoak direnean.

Kontaktuaren hipotesiaren teoria honez gain, aipatu beharra dago, aldez aurreko ikerketen meta-analisiak egin direla, eta hauek, argi eta garbi adierazi dute, taldeen arteko kontaktuak aurreiritziak gutxitzen dituela. Eragin positiboak, baita “*kontaktu diferituan*” ere aplikatzen dira. Hau da, kontaktu sozialari hedabideen bitartez.

Kontaktuak talde arteko familiartasuna eta sinpatia eragiten ditu egoera aukera zabal batean. Eta kontaktua eta familiartasuna, sinpatiarekin eta aurreiritziak gutxitzearekin lotzearen zergatia, ziurgabetasuna eta estutasuna gutxitzeko gai delako da.

Aipatu hipotesia eta nazioarteko boluntario-programen arteko lotura ikertu duten bi azterketa dira ondoren aurkezten ditugunak:



Children´s International Summer Villagesen esperientzia (CISV) (Watson, 2003)

50 urte baino gehiagotan, Children´s International Summer Villages (CISV) delakoak, udako kanpaldietako esperientzia edo bizipen ikasketan oinarritutako kultura-arteko programak zuzendu ditu.


CISVren lehen 10 urteko esperientziaren ondoren, azterketa bat egin zen eta honako ondorio hauetara heldu ziren:

- Kanpaldietan, hazten joaten den adiskidetasun sortze prozesu bat gertatzen da, nazio mailako oztupoak edo mugak gainditzen dituen.
- Izena emandako 5.000tik gora kontaktutan, %5a bakarrik izan da emozionalki negatiboa.
- Neska-mutilen arteko adiskidetasun sakonak eratzearen arrazoi nagusietako bat, baterako helburuen bidez lotuta zeudelako da.
- Neska-mutilak, 11 urtetik aurrera, komunikatzeko gai ziren baita hizkuntza komunik izan gabe ere.

Alde kuantitatiboaren emaitzak honela laburbiltzen dira:

- %92k uste du, oso garrantzitsua dela gisa honetako esperientziak oso gazterik izatea.

- %89k uste du, CISVren partehartzeak era positiboan eragin duela kulturaren eta desberdintasunaren kontzientzia mailan, eta baita kultur desberdintasunekiko bakoitzaren jarretan ere. Esperientziaren ondorio gisa ateratzen dute, beren gauzak egiteko modua ez dela bakarra.
- %89k uste du, paregabea izan zela CISVk emandako esperientzia, eskolan behin ere ikasi ez zutena. Zehatzago esanda, CISVk esperientzian oinarritutako hezkuntza jarduerak egiteko aukera ematen duela, liburuetan inola ere ikasi ez daitezkeenak.
- %86k, 21 urterekin edo gehiagorekin amaitu zuen bere prestakuntza, horrek adierazten du, bada, derrigorrezko ikasketaren ondoko hezkuntza mailetan jarraitzeko joera dagoela.
- Partaideetako batzuk, beste programa batzuetan inplikatu zen CISVen ondoren.
- %54, beste erakunde batzuetan inplikatu zen esperientziaren ondoko uneren batean.
- %59k adierazi zuen, harreman iraunkorrak eta baita bizi osoko adiskidetasunak ere mantentzen dituela.
- Erdiek aitortzen dute beren etxeakoak eta adiskideak ere parte hartu zutela CISV esperientzian.
- %39k jarraitu egin zuen CISV esperientzian parte hartzen.
- %20k, denbora tarte garrantzitsuak igaro zituen atzerrian.





FEIL (Federation of the Experiment in International Living) Esperientzia (Fantini, 2007)

Washingtongo Unibertsitateko Center for Social Development azterketa, Fantinik (2007) zuzendua eta FEIL (Federation of the Experiment in International Living) erakundeak, erakunde honen 75. urtemuga dela-eta burutu zuena, dugu boluntario-munduari aplikatutako kultura-arteko gaitasunaren azterketarik nabarmenenetakoa eta gaurkotasun handienetakoa duena. FEIL erakundeak, 1932. urtean sortutako fundazioa dugu, pertsonak garatzen zituen bitartean mundu baketsu bat eraikitzeko zeregina zuena. Antzekotasun eta paralelotasun ugari aurki ditzakegu esperientzia honen eta VOLPAREN ikerketaren artean; esperientzia hau, 23 herrialdeetako jatorria duten pertsona boluntarioek burutzen dute, 14 herrialde hartzaile desberdinetara zuzendurik.

Azterketa balio handikoa da, batetik, rol desberdineko eta kultura desberdinetatik datozen pertsonen ikuspegia sartzen duelako, eta bestetik, ebaluazioak ditu, ez auto-erregistro/auto-ebaluazio mailakoak bakarrik, baita kanpoko balorazioarenak ere.

Azterketak ateratzen duen ondorio nagusia oso positiboa da; boluntario-esperientziak, bizi-aldaketaren bizipena esan nahi du, maila anitzetan eta parte hartzen duten pertsona guztiei eraginez. Eraitza hauek gehiago zehaztuz:

1. Kultura-arteko gaitasunak pertsonaren ezaugarri multzo konplexua du bere baitan, buru irekitasuna, tolerantzia, enpatia eta motibazioa bezala aipatuak izan direnak, literaturan. Esperientziaren ondoren boluntarioei maila honetan ikusitako aldaketez galdetzen zaienean, erantzunak, batez ere, buru irekitasunean, tolerantzian eta auto-konfiantzan oinarritzen dira. Aitortzen dute baita ere, motibazio handiagoa, moldagarritasuna eta norberaren malgutasuna. Bestetik, hobekuntza esanguratsua sumatu dute komunikazio eta hizkuntza gaitasunetan.
2. Zentzu honetan, pertsonak lotura zuzena ikusten dute hizkuntza bat ikastearen eta kultura-arteko gaitasun hobekuntzaren artean. Suitzako boluntarioei, ahalegin gutxiago eskatu die laugarren hizkuntza

bat ikasteak, Britainia Handitik zetozenei baino, elebakarrak baituzten gehienak.

3. Aintzat hartzeko kontu garrantzitsu bat da, boluntario gehienek aukeratzen dutela borondatezko akulturazioa edo kultur asimilazioa. Irekitasun eta tolerantzia handiagorako aldaketa gisa, egokitze adierazletzat dute, harrerako herrialdean, beren erreferentziako pertsonen antzeko izatea eta bertako partaide sentitzea.
4. Esperientziak oso eragin sakona izan du, eta esan daiteke, pertsonen bizitza aldatu duela zentzu eta maila askotan. Aldaketak, hobera izan dira, bizitzeko eran eta ohituretan, balio pertsonaletan, lan arloan eta bizitzako erabakiak hartzerakoan eraginez. Adibidez, itzultzerakoan, pertsona hauek boluntario-jardueretan inplikatzeko dira, harrerako herrialdeko adiskideak mantentzen dituzte, herrialde horietara itzultzen dira lanera edo pertsona ezagunak bisitatzera, bidaiatzeko eta beste kulturak ezagutzeko interesa mantentzen dute, beste hizkuntzak ikasten jarraitzen dute eta beren herrialdeetan pertsona erreferente bilakatzen dira, mentoring eta coaching izeneko rol "aurreratuagoekin".
5. Esperientzian, nolabait, tartean izan diren eragile guztiek izan dute eragina. Aldaketa honen adierazlerik garrantzitsuena auto-kontzientzia (self-awareness) da, partaide guztiek adierazia. Boluntarioek adierazten dute, asko ikasi dutela harrerako pertsonekin eta haien kulturarekin, baina, behar bada, gehien ikasi dutena beren buruez izan dela. Aholkulariek, beren aldetik, honako baiepen iradokitzaile hau darabilte aldaketa adierazteko, "kanpora begiratzea, barrura begiratzea da" ("looking out is looking in"), eta Freireren heziketa hitza hartzen dute, kontzientizazioa. Eske edo kritika bakarra, harrerako herrietako pertsonen artean aurkitzen da, egonaldi luzeagoak eskatzen baitituzte lankidetzak hobeak izan daitezkeen.

